



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL
ETA GARDENTASUN BATZORDEA elkartu da, bigarren deialdian,
Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 24ko 16:00etan, Administrazioak
utzitako lokalean eta kide hauek bertaratu dira:

Juan Luis Ibarra Robles jauna, batzordeburua
José Antonio Nieto Antón jauna
Estefanía Ocariz Passevant andrea
Miren Ortubay Fuentes andrea
Ricardo Egiguren Mendieta jauna
Francisco Javier Hernáez Manrique jauna, idazkaria

Lehenengo puntua.- Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko
sailburuaren 2022ko otsailaren 18ko eskutitzaren berri eman da. Erabaki
hau hartu da:

“Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko
otsailaren 18ko jakinarazpena jaso da. Jakinarazpen horrek batetik,
[redacted] aurretiazko eginbideen prozeduran Bilboko [redacted] zk.ko Instrukzio
Epaitegiak [redacted] emandako autoan (honekin batera
kopia bidaltzen da) agertzen diren egitateen berri ematen du; eta bestetik,
Kontrol eta Gardentasun Batzordeari eskatzen dio, egoki baderitzo, kontu
hori azter dezala eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituen gomendioak
edo prebentzio-, zuzentze- edo hobekuntza-neurriak proposa ditzala.

Kontrol eta Gardentasun Batzordeak, aho batez, hau erabaki du:

1. Enkargua onartzea eta [redacted] aurretiazko eginbideen prozeduran
Bilboko [redacted] zk.ko Instrukzio Epaitegiak [redacted]
emandako autoan agertzen diren egitateak aztertzen hastea.
2. Bilboko [redacted] zk.ko Instrukzio Epaitegiari jakinaraztea Kontrol eta
Gardentasun Batzordeari eskatu zaion azterketaren helburua ez dela
diziplina- edo zigor-erantzukizunak argitzea edo ikertzea. Hori guztia,
Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina
onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 19.4
artikuluaren ezarritakoarekin bat”.

Bigarren puntua.- Aurreko erabaki hori bete ahal izateko, bi arlo hauei
buruzko informazioa jaso behar da:

Batetik, atxiloketa-jarduketa polizialean kamera subjektiboak
erabiltzearekin lotutako proiektu pilotuen ebaluazioa, erabilera-bermeak
eta erregimena.

Bestetik, espazio publikoetan egindako atxiloketak eta identifikazioak
direla eta, Ekinbidek eta Arartekok dituzten kexak. Memoretan agertzen
direnak eta beste kolektibo batzuek jasotakoak ere bai.



Hirugarren puntua.- 2021eko maiatzaren 20ko akta, 2021eko uztailaren 1ekoa eta 2022ko urtarrilaren 12koa onartu dira.

Eta lantzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitu da egun horretako 18:00etan.

Testu zuzendua duen akta, hutsak zuzendu baitzaizkio, 2023ko martxoaren 29ko erabakiaren arabera